



## IKASTETXEKO ZUZENDARI ARITZEKO HASIERAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA 2010EKO EKAINA

### EKAINA 2010

Egunak: 7a/9a/11a/14a/16a/18a, 09:00etatik 15:00etara, 36 ordu guztira.

Lekua: Berritzegune San Ingancio. Asturias kalea zº 9- 48950-Bilbao

**IKASTAROAREN HELBURUA:** Zuzendaritzako berezko eginbeharrak eraginkortasunez gauzatzeko beharrezkoak diren gaitasun profesionalak lantzea eta eginbehar horiek nork bere gain hartzea arrakasta bermatuz.

#### Helburuak:

- Zuzendaritzak duen garrantziaz jabetzea, betiere, ikasleek ikasi eta arrakasta izan dezaten ikastetxea eraginkortasunez eta ardura handiz kudeatzeko orduan.
- Ereduak eta sistemak ezagutzea; eta ekintza-teknika nahiz -arau zehatzak aplikatzea.
- Zuzendaritzako funtzio hauek gauzatzeko gaitasuna lantzea: diagnostikoa, planifikazioa, baliabideen kudeaketa, erabakiak hartzea eta ezartzea, eta ebaluazioa egitea.
- Zuzendaritza-proiektua sakon aztertu, eta ikasturtean ikaskitakoa kontuan hartuta, behar izanez gero, egin beharreko aldaketak txeratzeari.

#### EDUKIAK

**Edukien bidez, zuzendaritzan ondo aritzeko beharrezkoak diren gaitasunak –jakitea, nahi izatea eta egiten jakitea – garatuko dira.**

**Kontzeptuak (ezagutza profesionala):** Ondoko gai hauei buruzko kontzeptuak, teoria-ereduak, sistemak eta metodoak aztertuko dira:

1. Zuzendaritza-funtzioa: *Buruzagitza. Zuzendaritzaren eginbeharrak. Zuzendari aritzeko beharrezkoak diren gaitasun profesionalak.*
2. Ikastetxearen antolaketa eta kudeaketa: IHP, AJA eta HP proiektuak eta programak. *IUP txostena. Zuzendaritza-proiektua ikastetxeko ardatz dinamizatzaile moduan.*
3. Ikastetxeetako antolakuntza-egiturak. Ikastetxeetan gauzatzen diren prozesuak kudeatzeko sistemak: *hobekuntza-prozesuak, irakaskuntza eta ikaskuntza,...*
4. Antolakuntza eta dinamizazio pedagogikoa. Ikastetxeetan, laguntza-lanetan, sare-lanean, eta erabakiak hartzeko parte-hartze prozesuetan taldeak osatzea.
5. Ikasleen aniztasuna artatzea. Ikastetxeetan sortu ohi diren gatazkak. Ikastetxeko klima eta bizikidetzak.



**Jarrerak: (nahi izatea) Teoriari eta praktika berari buruzko gogoetak egiteko eta ikasteko ohiturak.**

- Ikastetxean zuzendaritzak duen garrantzia aintzatestea.
- Zuzendari-kargua hartzea eskola-elkarteari funtsezko zerbitzu bat eskaintzea balitz bezala.
- Zuzendaritza-eginbeharrekiko jarrera positiboak garatzea, hazkunde pertsonal eta profesionala baitakar harekin.
- Ikastetxeko ezaugarriekin eta beharrek bat datorren zuzendaritza-eredu pertsonala eraikitzen ikastea.
- Alor guztietan bikaintasunaren alde egitea.
- Parte-hartzea handitzea, eta taldeko lan moduan hartzea zuzendaritza.
- Erabakiak hartzean sor daitezkeen gatazken aurrean aktiboki jokatzeko, eta erantzukizunak hartzea.

**Prozedurak (egiten jakitea):** Teknikak, jardute-arau zehatzak, estrategiak eta prozedurak garatzea eta aplikatzea:

- Ikastetxea sakontasunez aztertzea.
- Beharren eta egoeren diagnostikoa egiteko.
- Proiektuak diseinatzeko eta inplementatzeko.
- Ikastetxea dinamizatzeko, ikasle guztiek ikasteari begira.
- Erabakiak hartzeko eta gatazkei heltzeko.
- Baliabideak kudeatzeko.
- Harremanak kudeatzeko.

## METODOLOGIA

- Parte-hartzea, elkarriketa eta elkarlana ardatz dituzten gaitasunak garatzeko prozesuetan oinarritutako metodologia. Hainbat ezagutza-motetan oinarritutako metodologia: parte-hartzaileen ezagutza, teoriatatik eta ikerketetatik eratorritako ezagutza, praktikatik eta esperientziatik sortutako ezagutza, eta parte-hartzaileek, elkarlanean, ikastaroan sortzen duten ezagutza.
- Elkarriketa-azalpenak, banakako lana, talde handitan nahiz txikitan.
- Dinamika parte-hartzaileak, eztabaidak eta kasuak aztertzea.
- Partekatzearen, hausnartzearen eta gai bakoitzean adituak diren pertsonen ekarpenen bidez ikastea.
- Saioetan landutako gaiak banaka eta egunero lantzea. Zuzendaritzako proiektua aztertu eta, beharrezkoa bada, egoki diren aldaketak egitea.

## EBALUAZIOA

Ebaluazioa ikastaroko funtsezko elementuetako bat da, eta bi mailatan egingo da.

1.- Ikastaroaren antolamendua eta funtzionamendua hobetzeko: saioak egunero ebaluatuko dira, egon daitezkeen desadostasunak berehala konpontzeko eta saioak etenik gabe egokitze nahiz hobetzeko. Ikastaroa amaitzean, ikastaroaren ebaluazio orokorra egingo da. Ebaluazio horretan ikastaro osoari buruzko informazioa sortuko da, gerora egingo diren beste ikastaro batzuetarako erabilgarri izango dena.



Beren beregi sortutako ebaluazio-batzorde batek ikastaroaren etenik gabeko jarraipena egingo du.

## 2.- Parte-hartzaileek ikastaroa gainditzea:

Kalifikazio-batzorde bat izendatuko da parte-hartzaileak ebaluatzeko, eta irizpide hauek hartuko ditu kontuan hori egiteko:

- Ikastaroko jardueretan, dinamiketan eta batzordeetan parte hartzea, inplikatzeta eta horietara guztietara joatea. Kontuan hartuko dira ikastaroa eman duten tutoreek egindako txostenak, prestakuntza-ikastaroan parte hartu duen pertsona bakoitzak egindako lanari buruzkoak.
- Parte-hartzailearen azken memoria txostena. Ikastaroa amaitzen denean, Parte hartzaileek, azterlan praktikoa bat aurkeztu beharko dute. Lan horretan, ikastaroko ekarpenak kontuan hartuta, zuzendaritzako proiektuak aztertu eta baloratu beharko dituzte, nor berea. Bestalde, aldaketak eta lehendik dauden proposamenak (erabilgarritzata eta baliozkotzat jotakoak) azaldu beharko dituzte.



## PROGRAMA

### IKASTETXEKO ZUZENDARI ARITZEKO HASIERAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA

Egunak: ekainak 7/9/11 // 14/16/18. Orduetgia: 09:00etatik 15:00etara.  
Tokia: San Ignazioko Berritzegunea. Asturias kalea, 9. zk. 48015-BILBO

	2010/6/7 ASTELEHENA	2010/6/9 ASTEAZKENA	2010/6/11 OSTIRALA
1. SAIOA	<p>Ikastaroaren helburuak Programa Metodologia Ebaluazioa Parte-hartzaileak aurkeztea Batzordeak sortzea eta batzordeak sortzea. Zelan ikasten duten helduek</p> <p><b>Ikastaroaren aurkezpena.</b> Marcelino Hernández Garduño.</p> <p><b>Hizlariak:</b> Ikastaroaren koordinatzaileak</p>	<p>Ikastetxearen antolaketa eta kudeaketa: IHP, AJA eta HP proiektuak eta programak.</p> <p><b>Hizlaria:</b> Inmaculada Cereceda.</p>	<p><b>IKASTETXEA ERAKUNDE</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkuntza-erakundeen konplexutasuna.</li> <li>- Kultura erakundeetan</li> </ul> <p><b>Hizlaria:</b> Ismael Redondo.</p>
2. SAIOA	<p>Buruzagitza: Ereduak eta teoriak.</p> <p><b>Hizlaria:</b> Alejandro Campo.</p>	<p>Plangintza operatiboa: IUP txostena.</p> <p><b>Hizlaria:</b> J. Angel Ayucar.</p>	<p><b>IRAKASKUNTZA- ETA IKASKUNTZA-PROZESUEN KUDEAKETA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- II eta ikasleen ikaskuntza: funtzioak eta zereginak.</li> <li>- Irakaskuntza ebaluatzea</li> <li>- Ikaskuntza ebaluatzea.</li> </ul> <p><b>Hizlaria:</b> Lurdes Uriarte.</p>
3. SAIOA	<p>Zuzendarien eginbeharrak eta zuzendari izateko beharrezkoak diren gaitasun profesionalak.</p> <p><b>Hizlaria:</b> Alejandro Campo.</p>	<p>Zuzendaritza-proiektua ikastetxeko ardatz dinamizatzaile.</p> <p><b>Hizlaria:</b> Alfonso Fernández.</p>	<p>Hobekuntza-prozesuak kudeatzea.</p> <p><b>Hizlaria:</b> Kepa Portillo.</p>



	2010/6/14 ASTELEHENA	2010/6/16 ASTEAZKENA	2010/6/18 OSTIRALA
1. SAIOA	<p><b>IRAKASLEEN LANA, TALDE-LANA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldetik lantaldera. Lan kooperatiboaren ahalmena.</li> <li>- Taldeak eraginkorrak izateko funtzio osagarriak.</li> </ul> <p><b>Hizlariak:</b> Eduardo Pérez - Amparo Fdez Beraza.</p>	Lurralde Ordezkaritzara bisita eta zerbitzu-buruzagitzekin mahai ingurua.	<p><b>IKASTETXE INKLUSIBOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolakuntzako ondorioak.</li> <li>- Ikastetxe inklusiboaren filosofia. Antolakuntzako aldagaiak. Ebaluazioa egiteko gida; INDEX</li> </ul> <p><b>Hizlariak:</b> Lourdes Iriarte / M<sup>a</sup> Sol Uría</p>
2. SAIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeetako koordinazioa. Antolakuntza eta dinamizazio pedagogikoa.</li> </ul> <p><b>Hizkalaririk:</b> Karmele Arraiza- Emilio Martín.</p>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsonak erakundeetan.</li> <li>- Eskolako klimaren kontzeptua.</li> <li>- Eskolako klimaren eta eraginkortasunaren arteko lotura. Ikastetxeko klima aztertzea.</li> </ul> <p><b>Hizlaria:</b> Neli Zaitegi.</p>
3. SAIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeetan, laguntza-lanetan, sare-lanean, eta erabakiak hartzeko parte-hartze prozesuetan taldeak osatzea.</li> </ul> <p><b>Hizlariak:</b> Karmele Arraiza/ Emilio Martín.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren lana: ikasturteko txostena prestatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gatazkak eta bizikidetzak lantzea.</li> </ul> <p><b>Hizlaria:</b> Neli Zaitegi.</p>
			<p>ONDORIOAK IKASTAROAREN EBALUAZIOA OROKORRA ETA ITXIERA</p>